

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Mari Ajuria Duñabeitia

*Muxika,
Bizkaia
(1927-2022)*

Aurkibidea



Biografia



1927. urtean sortu zen San Roman auzoko (gaur egun Amona izenez deitua) Etxerre baserrian eta bertan bizi izan da beti. Aita bertakoa zuen eta ama Berroja auzoko Arandia baserrikoa. Bere aita 25 urtez herriko zinegotzia izan zen. Hamar neba-arrebatatik bigarrena da. Umetan Kurtzeroko eskolan ibili zen. Baserriko beharretan ibili izan da beti eta Elorriagan ere urte askoan ibili zen erretiratu arte. Zilloniz auzoko Erregene baserriko alabarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

MUX-017

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-06-24
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

MUX-018

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-06-24
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Inguruko jaietako erromerietara

- **Erref:** MUX-017/003
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:05:41. **Bukatu:** 00:06:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Gaztetan Zugastietaraino joaten ziren erromeriara. Astelarran ere egoten zen erromeria. Kanpantxura (Ajangiz) San Juanetan baino ez ziren joaten.</p>

Transkripzioa

- Ta zuk umetako ze akordu dekozu hamen parajien-edo? Zuek hemendik, hemen mobiduten ziñien, Kurtzerora joaten ziñien-edo.
- Gu apur bet edadien hamazortzi edo gitxiau, Zugastietara erromeridxera. Zugastietaraino joaten giñen, bai oiñez, etorri oiñez goizaldien etorten giñen-ta. Ba juaan trenien-edo joaten giñen. Ze hamen, erromeridxe hamen be eitten zan, Astelarren erromeridxe eitten zan, baia hangodxe jokerie hartun gendun unada baten ta kuadrillie joaten giñen, neskatilek be gero tope genduzen, hurrungo bueltan gero bertan izteko, baia. Gero hurrungo tanda baten, Morgara hasi giñen ostabe ta ez daitz zemat denpora segidu gendun Morgan be, ba neskatilek topeu ta neskatilek-lagune topeu-ta, han be hainbeste.
- Ta Kanpantxu partera be joango ziñien ba?
- Jaidxetan bai. San Juanetan-eta, San Juan untxe hamen eitte da ermittetxu baten. Ostantzien Asentzidoak eta hamengo bueltako erromeridxetara danatara, danatara joan.

2. San Roman eta Ugarte arteko mugak

- **Erref:** MUX-017/004
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 00:06:59. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Amona auzoaren izena berria dela dio, beraien etxea San Roman auzoan sartzen dela. Errekak zehazten du muga Ugarte eta San Romanen artean. Udaletxea ere berez San Romanen dagoela dio.</p>

Transkripzioa

- Ze hamen berton, Amonan, ez dau ezebez, ezta?
- Hori "Amona" entzun be ez dot gure.
- Ez, zelan da ba?
- "Barrio San Roman". Honen entzuterik be ez dogu euki. Hau nundik datorren iñok be ez daki, "Amona".
- Nik be ez dakitz, nik be entzunde.
- Bai, bai, bai. Hau "Barrio Amona" nire karnetak ez deko "Barrio Amonarik" esan naben eta nik ez dot kanbidxetan San Roman ez dot kanbidxetan nik "Amona" guztidxegaitzik be esan notson, esan netsien, ta beittu karnetien ta "Barrio Amona".
- Ta hori izena nundik dator ba? "Barrio Amona"? Zuk beti ezetu dozu "San Roman"?
- Bizi guztidxen. Bizi guztidxen San Roman eta San Romanek entzutie itzela euki deu. San Romanen lehenau eitten zien erromeridxe, beuno! Ez zeuen eduki, ez zeuen euki zerik bez.
- Baia honek etziek San Roman, elizaz San Roman da orduen hau etzie?

- Ba ba hau zera handiko partie errekie oin errekie kurtzetan deu, handiko partie Ugarte da. Ta honeri behekoari, ez daitz ze esaten dotsen, baia Ugarte, Ugarte da. Ha Elizaldetik datorren errekie, ta honen bestie errekie ha ndik harantzekoa Ugarte da, ta hau hametik honantzaukoa San Roman. Astelarrekoa, Astelarren ez daitz nun dibisiñoa eitten da, Ariatzako partien sartzen da hor.

- Ba nik beti eduki dot entzunde “Amona”. Niretzat hau be geuza barridxe da.

- “Amona” ontsukoa da, ontsukoa da “Amona”. Zemat? Hondiño urte gutxi dekoz “Amona”k, urte gitxi-gitxi. Astelarraz ez daitz ibilli bazan hau, baia San Romanaz ibilli da hau beti, San Romanaz.

- Zuek beti esaten dozue San Romanekoak zariela?

- Bai, bai.

- Guretzat San Roman da han goidxen dauen euzunie.

- Estaziñotik gorantza, estaziñotik gorantza bai. Handiko zereraíño, trokaraiño, San Roman. Ha Elizaldie Elizaldie atrapetan deu goittik behera etorritte, han [Kolaganeko] ha errekatxue bet sartzen da hara ta bestie gero errekie dator hor, ta han errekien hona hametiko partetik San Romanekoak diz. Asike eske ha Elizaldeko Pertikena Pertikan hara, zera harek ze izen deke ba, etze bi dauz aiuntamentuen beste aldetik, aiuntamientue dau hamen, Ugarte. Ez, aiuntamientue ha be zerien badau, San Romanen.

- A bai? Errekien beste aldien dauelako?

- Aiuntamientue be San Romanen dau! Nik bestiek, nau bestien zeranak, baia aiuntamientue San Romaneko partie.

- Errekie han goittik beherako errekiek ebaten deu ta gero bestie bestie beste errekiek ebaten deu asike eske, aiuntamientue, Muxikeko Elizaldekoa, San Romanen. Ta hau bestie, hau lehengo aiuntamientue eskolie dauena, Ugarte, “Barrio Ugarte”.

- Eta oin hamen “Amona” esaten dotsiena ze etze sartzen zarie hor?

- Ba ba errekatik hona harek Zubietako etziek, Astelarran, Astelarran harek etziek, “Luparidxa”, Galtzape, ta honek eiñiko honek txalet honek bidxek, hau alabiena eta bestie konsuegroagaz ein beheratxuau beheraukoana, ta hametik Borikene. Ta gero dibisiñoa dau hor gorau, Ajangiz sartzen da-ta, ya hor norbera bajatzen bada Ajangiz dau hamen. Hau hamen, hona behera, ez, bajatzen zarenien, handiko partie Ajangizkoak die horrek, “Barrio Kanpantxu”.

- Zuek hurrau zauzie Ajangiztik Muxiketik baiño.

- Haidxe Elizaldie, ha Elizaldie urriñau dau, Elizaldie urriñau dau, Elizalderako juteko, Elizaldie Muxikekoa baiño Ajangizkoa zera urriñau dau. Ostantzien, ha arraidxan-arraidxan dekogu dana, han goidxen hasitte, zereraíño beheraiño, Ajandiz dau berton.

3. Kurtzeroko eskola

- **Erref:** MUX-017/005
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:12:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Umetan Kurtzeroko eskolara joaten ziren oinez. Domeka eta jaiegun

guztietan mezara joaten ziren, bestela bekatu mortala zen. Kurtzeroko eskolan inguruko ume guztiak batzen ziren. Kanpantxuko (Ajangiz) batzuk ere Kurtzeroko eskolara joaten ziren hurbiltasunagatik.</p>

Transkripzioa

- Zuek umetan hemendik nora joaten ziñien eskolara-ta? Horra, Kurtzerora?
- Kurtzerora. Oin, oin ezin deu iñok bez deu hoan hara harantzaxuau dau ta gu oiñez egunien bieja bi. Baitte zera be, elizara be, orduen domeka ta jai guztidxetan mezie biher izeten /bizeten/ zan pekatu mortala izen zan ha ez juatie eta ez entzutie, mezie ez entzutie-eta.
- Ta Kurtzeroan nungo neska-mutillek batzen ziñien ba eskolan?
- Eskolan ba barriada guztidxe, San Romanekoak, barriada guztidxe. Beittu hori hortiko partekoa, Ajangizko partie da, ta honadxe Muxikeko eskolara ibiltten auen, hori neure kinttoa da.

4. Muxikako futbol-taldea

- **Erref:** MUX-017/010
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:21:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Muxikan futbol-taldea egon zen, baina Jose Mari ez zen zalea. Jokalari batzuk aipatzen ditu.</p>

5. Soldadutzan bizikletaz Plentziara

- **Erref:** MUX-017/012
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:22:12. **Bukatu:** 00:26:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Neskekin ez zuten inolako harremanik izaten. Bizikleta zaharra eta eskasa baino ez zuten izaten. Soldadutza Plentzian egin zuen eta bizikletaz joaten ziren bertara. Zapatu-domeketan etxera bueltatzen ziren.</p>

6. Muxikan txirrindularitzarako zaletasuna betidanik

- **Erref:** MUX-017/014
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:27:02. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Muxikan txirrindularitzarako zaletasuna beti egon da, txirrindulari asko egon baitira: Oscar Elgezabal, Barrueta, Juantxu... Pilotaririk ez da egon inoiz, ez baitzegoen ezta frontoirik ere.

7. Lehen animalia eta pizti ezberdinak ikusten ziren

- **Erref:** MUX-017/016
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:29:41. **Bukatu:** 00:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Fauna

Laburpena:

Hondartzara berandu hasi ziren joaten, errekan bainatzen ziren. Errekan, arrainkariak, kaskailuak egoten ziren, kangrejoak erreka txikietan egoten ziren, baina jada ez daude. Lehen erbi asko zeuden, azeriak ugaritu zirenean urritu ziren. Lehen ez zegoen orkatzik, gaur egun asko.

8. Azpigarritan

- **Erref:** MUX-017/018
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:32:22. **Bukatu:** 00:34:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Azpigarritan basora joaten zirenekoa. Gurdiarekin joaten ziren, baina gurdia astuna izaten zen. Solo guztietan behar izaten zen satsa.

9. Goldak eta burdin-hariak

- **Erref:** MUX-017/022
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:38:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Goldak eta burdin-hariak orain ez dira erabiltzen. Garia ebakitzeko makinak etorri zirenean, horien erabilera desagertu egin zen.

10. Lehen txori ugari

- **Erref:** MUX-017/023
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:38:46. **Bukatu:** 00:41:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Fauna
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Lehen garia zein artoa ereiten zuten. Poxpolinak, elaiak eta usoak ugari egoten ziren lehen. Elaiak kabiak bazarekin egiten zituen. Ehizan asko ibili da Jose Mari. Behin orkatza zelan harrapatu zuen kontatzen du.</p>

11. "Pedro y medio" errementaria

- **Erref:** MUX-017/024
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:41:39. **Bukatu:** 00:43:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Errementaria etxetik hurbil zuten, eta bertan jartzen zizkieten perrak ganaduari. Lehenago "Pedro y medio" errementaria egon zen, baina berak ez zuen ezagutu. "Pedro y medio"ren istorio bat kontatzen du.</p>

12. Astelarrako taberna

- **Erref:** MUX-017/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:47:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Astelarrako auzoan taberna bat zegoen eta bertan batzen ziren askotan. Elizalde auzoko Kimerako Jose Mari Oar-Arteta alkatea ere bertan egoten zen.</p>

13. Emagina eta bizargina

- **Erref:** MUX-017/028
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:49:54. **Bukatu:** 00:52:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Bere amak 10 seme-alabak auzoko batek lagunduta izan zituen. Bizarginarengana Etxeko tabernara joaten ziren, zapatuetan egon zen.</p>

14. Baserriari esker bizirik

- **Erref:** MUX-017/030
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:52:58. **Bukatu:** 00:55:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Muxikako Kurtzero auzoan denda bat zegoen. Hala ere, Gernikara joaten ziren sarritan, bere ama esnea saltzen joaten baitzen. Baserritik lortu zutela bizirik irautea dio, gaur egungo egoera ez dela krisi-egoera, lehengoa bai krisia.</p>

15. Gerrako garai gogorrak

- **Erref:** MUX-017/033
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:56:14. **Bukatu:** 00:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra aurrean zein ostean, berdintsu egon zirela dio: txarto. Gernikako bonbardaketaren osteko egunean, bertan egon zen. Etxetik irteteko hainbat abisu izan zituzten, baina ez ziren inora joan.</p>

16. Gerrako soldaduak eta hildakoak

- **Erref:** MUX-017/034
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:59:45. **Bukatu:** 01:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Denetariko soldaduak egon ziren inguru horretan gerran. Beraien ondoko baserriko bateko gizona hil egin zuten. Abade asko ere desterratu eta hil egin zituzten.</p>

17. Gerratik ihes egindakoak etxean

- **Erref:** MUX-017/035
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:03:35. **Bukatu:** 01:04:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gernikako asko Muxika aldera hurreratu zen bonbardaketa ostean. Arrien familia Galtzape baserrian egon ziren. Beraien etxean Morgako batzuk egon ziren.

Ajuria Duñabeitia, Jose Mari | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-05-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com